

Bergarako kirolaren historia argazkitan

BERGARA 2018. AROZTEGI ARETOA

Erakusketa • Exposición

Abuztuaren 3tik 26ra • Del 3 al 26 de agosto



Emakumeak cricketean. 30eko hamarkada.

ERAKUSKETA **EXPOSICIÓN**
Bergarako kirolaren historia argazkitan

ANTOLATZAILEA **ORGANIZADOR**
Bergarako Udala **Ayuntamiento de Bergara**

ARGAZKIAK **FOTOGRAFÍAS**
Udal Artxiboa **Archivo Municipal**

INPRIMAKETA-EDIZIOA **IMPRESIÓN-EDICIÓN**
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA **EDICIÓN**
Bergarako Udala **Ayuntamiento de Bergara**

LEGE GORDAILUA **DEPÓSITO LEGAL**
SS-811-2018

KIROLA, BERGARAREN ERRITMOAREN HAUSPO ETA LEKUKO


Bergara herri kirolaria eta kirolzalea da. Beti izan du kirola zainetan, egunerokoaren erritmoa ezartzen eta bizi gogoa hauspotzen.

Ugariak dira Bergaran mendeetan praktikatu izan diren kirol modalitateak; batzuek distira handia izan zuten, beste batzuek oharkabeen pasa ziren, batzuek indarrean jarraitzen dute eta horietako batzuk egunerokoan txertatuta daude jada.

Partikularrek zein Bergarako kirol elkarteek kirola bultzatzeko hamarkadatan egin duten lana eskertu nahi du erakusketa honek; eta era berean bergararroi erakutsi zer kirol praktikatu diren herrian, hori gure historiaren parte ere bada-eta.

Begararen 750. urteurreneko ekintzak antolatzeko Kirol Mahaian sortu zen erakusketa egiteko ideia eta, Udalaren ekimenez, Iñigo Zaitegi eta Pili Arin jarri ziren zeregin hori koordinatzen. Zaitegik urteak egin ditu BKEren inguruan laguntzen eta beti izan du argazkigintzarekiko zaletasuna. Udal Artxiboa arakatu eta ehunka argazkien artean herrian izan diren kirol guztiak ordezkatzeari lortu du lagin honetan. Alboan Pili Arin izan du, irakasle eta kirolaria izandakoa, Bergarako atletismoa izan zena erakusteko lanean dabil, eta Zaitegiri lagundu dio erakusketa honetako argazkietan ageri diren pertsonen izenak aurkitzen.

Izan garelako izango gara! Gure balioekin aurrera!



Agorrosin futbol zelaia. 1920ko hamarkada.



Jesus Aranzabal txirrindularia Gipuzkoako txapeldun.
1961eko abuztua.



Motokrossa. 1961ko maiatza.



Bolo jokoan. 1980ko uztaila.



Aitor Zabaleta auto karreratan. 1993ko otsaila.



Gimnasia erritmikako taldea. 1991ko urria.



Eskubaloiko emakumeen taldea. 1993ko otsaila.



Saskibaloiko mutilen taldea. 1993ko otsaila.



Waterpolo taldea. 1993ko otsaila.



Futboleko gazte taldea. 1999.



Pilota taldea Euskal Herriko txapeldun. 2009.



BERGARAKO KIROLAREN HISTORIA BATZEN DUEN ARGAZKI ERAKUSKETA

Uztailaren 28ra arte izan da ikusgai Bergarako kirolaren historia batzen duen argazki erakusketa Agorrosinen, taberna ondoan dagoen patio estalian. Orain, abuztuaren 3tik 26ra bitartean, Aroztegi aretoan ikus dezakezu.

Iñigo Zaitegiren ekimenez, Pili Arinekin eta Udalarekin lankidetzan, Bergarako historian arakatu eta herrian izan diren diziplina guztietako argazkiak batu dituzte, gizonezkoenak, emakumezkoenak, hamarkada askotakoak... Irudiak Udal Artxibotik hartu dituzte.

Horien artean, badira dagoeneko herrian praktikatzen ez diren diziplinak ere: atletismoa, harri-jasotzea, badmintona, boxeoa, motorrak...

Argazki zaharrenak 20ko hamarkadakoak (Agorrosin futbol zelaia) eta 30ekoak (cricket-a Mariaren Lagundian) dira, baina herrian izan diren kirol diziplina guztiak batuta daude. Are gehiago, argazki bakoitzean agertzen diren pertsonen izen-abizenak ere jaso dituzte lan borobila eginez.

Bergarako kirolaren historia argazkitan

Ordutegia:

asteartetik ostiralera	18:00 - 20:30
larunbatetan	12:00 - 14:00
	18:00 - 20:30
igande eta jaiegunetan	12:00 - 14:00



AROZTEGI
ARETOA



Begarako
Udala



urte